

/ Nabarmentzekoak

- > Zaintzari buruzko "Twentifourseven" dokumentalaren proiektzioa Gurarin (3. or.)
- > Ur Partzuegoak Portu Zaharreko eta Arrigunagako ponpaketa-instalazioak hobetzeko lanak hasi ditu (4. or.)
- > Salsidu etorbidean zuhaitzak berritzeko eta hobetzeko lanak hasi dira (4. or.)



*"No me toques el cuento", komedia musikal ganberro bat, non printzesak matxinatu egiten diren (3. or.)

Negufest. Ostirala, hilak 27, 21:00etan, Muxikebarrin, La Habitación Roja taldearen kontzertua (indie pop-rocka). 22 euro.

Anterkia. Larunbata, hilak 28, 20:00etan, Muxikebarrin, "Nor naizen baneki", Artedrama + Axut!-ekin. 8 euro.

A-
GENDA



Algortak eta Areetak Romori eta Andra Mariri lekukoa hartu eta kalera irtengo dira Inauteriak ospatzeko

Algortak eta Areetak Romori eta Andra Mariri lekukoa hartuko die asteburu honetan, eta inauterietako festa ospatuko dute kaleetan. Talde antolatzaileek pertsona guztiak mozorrotzera eta adin guztietarako jarduerak aurreikusten dituen programazioan parte hartzera animatzen dituzte.

Algorta

Inauterien aurtengo gaia *Erdi Aroa* da. Mozorro lehiaketaz gain, dendetako erakusleihoak eta horretarako apaintzen diren tabernetako fatxadak ere sarituko dira.

Programazioa ostiral honetan, hilak 20, hasiko da, 17:15ean, San Nikolasen egingo diren umeentzako tailer eta antzerkiekin. Ondoren txokolatada eta diskofesta izango dira. 20:00etatik aurrera, Areatxu fanfarreak girotuko ditu kaleak.

Larunbatean, hilak 21, ekitaldi gehien programatuko diren eguna izango da. 12:00etatik aurrera, haur eta familientzako photocall bat izango da Zabalako eskoletan. Ordu

horretan ere, Agurra taldeak kalejira egingo du erraldoi eta buruhandiekin, Kasunetik aterako dena, eta Itxartu Taldeak inauterietako desfilea egingo du Tellagorritik. Musika banda kalejira egingo du eta Drums & Karro eta Kimetz abesba-

tzak musika poteoak egingo dituzte. Goizeko ekitaldiei amaiera emateko, familien bazkaria egingo da J.B.Zabala eskolan eta koadrilen bazkaria San Nikolas plazan. 18:00etan mozorroen desfilea hasiko da Zabalan; ondoren, sariak banatuko dira Ka-

sinoko plazan eta, 19:30ean, zumba egongo da Rosirekin. 20:00etan, Katean, zDeanekin erromeria egingo da eta 21:30ean, Kasinoan, Sapo y el Sello arituko da. 22:00etan, Estrella Electrónicaekin (Mugarri taberna) eta Txiringito tabernan zitzadak izango dira. Eta, 22:30ean, DJ Bullek saioa eskainiko du San Nikolasen.

Igandean, hilak 22, jarduerak goizez izango dira. 11:30ean, San Nikolasen, haurrentzako egur tailerrak izango dira Argia Fundazioarekin. 12:00etan, Telletxetik, Agurra Inauterien desfilea eta 13:00etan, Merheziren kontzertua Katean. Azken ekitaldia, 13:30ean, txistorra jana izango da San Nikolasen.

Areeta

Urtero bezala, Berantzagi Dantza Taldeak hainbat ekintza antolatu ditu larunbaterako, hilak 21, goizean. 11:00etan hasiko dira, Eskoletako plazan, eta tailerrak, txokolatada, Dantza Plaza, dantza erakustaldia Vivó la Dance taldearekin eta mozorro lehiaketa bat izango dira.

SEGURTASUN-DISPOSITIBO BEREZIA ALGORTAN

Joan den asteburuan Romon egin zen bezala, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren patruilak, uniforme jantzitakoek eta kale jantzitakoek, jai-esparruetan eta inguruetan lan egingo dute.

Armen kontrola egingo da, alkoholaren kontsumo eta salmenta kontrola eta alkoholemia kontrolak egingo dira. Polizia-gune finkoa egongo da, herritarrek edozein errekerimendu egin behar baldin badute, ahalik eta lasterren jardun ahal izateko, Algortako Etorbidearen eta Andrés Cortinaren arteko bidegurutzean. Gainera, bideo-zaintza kamerak jarriko dira; izan ere, baliabide horrek joan den urteko jaietan oso emaitza onak eman zituen.

Bestalde, Udalak baimena eman du ostalaritza-lokalen itxiera-ordutegia 1:30 ordu luzatzeko, ostiralean, hilak 20, eta larunbatean, hilak 21. Amaia Aguirre alkateak gogorarazi duenez, "inauteriak gozatzeko, barre egiteko, kalera irteteko eta lagunekin eta familiarekin ospatzeko egunak dira. Getxoko jairik berezietako bat da, eta mundu guztiak lasai bizi ahal izatea nahi dugu. Irtetea, gozatea eta inauteri hauek guztiontzako festa handi bihurtzea tokatzen da. GOZATU!".



OTSAILAK 24 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Hitzaldia. Musika Klasikorako Sarrera. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "El romanticismo musical". Hizlaria: Diego de Amigo konpositore garaikidea eta Barakaldoko Kontserbatorio-ko irakaslea. www.allantica.org

OTSAILAK 25 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gora.

Versadas. Olerki kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Ángel González obrari buruz.

OTSAILAK 26 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Alberto Gasteiren "Singular". 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

Txokoa. 19:30ean, Villamonte Kultur Etxean. Joxean Agirrerren "Gizon barregarriak" liburuari buruzko solasaldia, euskaraz, doan. Egizuk antolatuta. Izena emateko: labur.eus/irakurzaleak

OTSAILAK 27 OSTIRALA

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alex Thompson & Kelly O'Sullivanen "Ghostlight". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Negufest. 21:00etan, Muxikebarrin, La Habitación Roja taldea (pop-rock indie). 22 euro.

OTSAILAK 28 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Nor naizen bane-ki", Artedrama + Axut! konpainiarekin. 8 euro.

Solasaldia. 11:00etan, Azebarri Kultur elkartearen. "Zikloturisten bidaia-kontaktak", euskaraz, doan. Mintzapraktika ekimenaren barruan.

MARTXOAK 1 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Diplodocus" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "La niña de la cabra". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Udalerriko ardatz komertzialak ikusarazteko, sustatzeko eta bizia emateko

Abian da GetxoAktibaTU! programaren beste edizio bat

Udaleko Ekonomia Sustapena Arloak *GetxoAktibaTU!* programaren beste edizio bat jarri du martxan, udalerriko merkataritza ardatzak ikusarazi, sustatu eta biziberritzeko helburuarekin. Jarduerak apirilean hasiko dira eta parte hartu nahi duten saltokiek dagoeneko izena eman dezakete.

Juanma Gonzalez Getxolan-Ekonomia Sustapen Arloko zinegotziak gogorarazi duenez, "*GetxoAktibaTU!*-k hainbat helburu ditu: hiri-ingurunea eta udalerriko eremu komertzialak dinamizatzea; tokiko talentua eta ekintzaitza detektatzea, eta pertsonak hori partekatzen animatzea; herritarrei aktibitateen programa osoa eskaintzea,

negozio berriak deskubritzeko eta gozatzeko; eta udalerriko dituen negozio eta profesionalen aniztasuna ikusaraztea".

Iaz 700 pertsona inguruk hartu zuten parte GetxoAktibaTU! programaren barruan egindako jardueretan. Guztira 73 ekitaldi izan ziren apiriletik urrira bitartean, guztiak herriko profesionalak, elkarteak eta negozioek antolatutak.

Bederatzi urteko ibilbidean, 13.000 parte-hartzaile baino gehiago izan ditu programatutako 770 jardueretan.

Nola parte hartu

Dagoeneko hasi da apirileko agendarako parte-hartzaileak erakartzeko fasea. Programa honetan izena eman dezakete jardueraren bat antolatu nahi duten edo beren lokalean jardueraren bat hartu nahi duten udalerriko saltokiek, ostalaritza-estabazimenduek edo zerbitzu profesionalak, baita bere ezagutzak eskaini nahi dituenak, edo hitzaldi edo tailer baten bidez norbaiti ahotsa eman nahi dionak ere.

Programari buruzko informazio gehiago 94 471 36 01 telefonoan edo getxoaktibatu@getxo.eus helbide elektronikoan.



Autonomiak haurtzaroan duen garrantziari buruzko hitzaldia, Eskola Bidea proiektuaren barruan

Autonomiak haurtzaroan duen garrantziari buruzko hitzaldi bat egingo da Villamonteko Kultur Aretxean, hilak 26, 17:30ean, udal Ingurumen Unitateak antolatuta Eskola Bidearen proiektuaren barruan. Bereziki Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailen arteko seme-alabak dituzten familientzat eta haurren hezkuntzan eta garapenean interesa duten guztientzat dago zuzenduta.

Familiak haurren garapen integrala sustatzen duen ekimen honetara hurbiltzea da helburua, haien autonomia, konfiantza eta erabakiak hartzeko gaitasuna indartuz. Uste da haurtzaroan autonomia sustatzea funtsezkoa dela haurren garapen pertsonal, sozial eta emozionalerako. Klasera lagunekin oinez joateak, bere erantzukizun eta konfiantza sena indartzeaz gain, ohitura osasungarriak eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako harre-

manak sustatzen ditu.

Saioa Wabi Sabi Natura elkarteko bi kidek emango dute. Elkarte horrek, haurtzaroarekiko errespetua eta gidatua ez den jolasa sustatzen ditu eta bizitzako lehen urteetatik naturarekiko harreman izatearen balioa ere irmo defendatzen du. Bere hezkuntza-ikuspegiak lotura hori berezko jolasaren, harriduraren eta esplorazio askearen bidez sustatzearen alde egiten du, haurtzaroko hazkunde pertsonal eta emozionalerako funtsezko tresna gisa.

Hitzaldia dohainik da eta jende guztiarentzat zabalik dago, baina alde aurretik izena eman behar da. Interesatuak izena eman beharko dute info@ingurumenaretoagetxo.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz edo Ingurumen Aretora telefonoz deituta (688 883 596).



OTSAILAK 19 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kutxa txiki magikoak", Bego Alabazaneekin. 3-6 urte. Doan. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntzaitez

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinon, Pilar Quintanaren "La perra" liburuari buruz.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Constance Tsangen "Blue Sun Palace" (AJB). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

OTSAILAK 20 OSTIRALA

Inauteriak. Algorta. Info: <https://labur.eus/oeufopud>

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Jainko bakarra", Martzel do Nascimento Goiriaren margoak.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "No me toques el cuento", Olivia Lararekin. 12 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Albert Serraren "Tardes de soledad". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

OTSAILAK 21 LARUNBATA

Inauteriak. Algorta eta Areetako. Info: <https://labur.eus/h0l3sj51>

Neguko bidaia. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Azken Dantza hau", Mario Clavell & lagunak. 5 euro.

OTSAILAK 22 IGANDEA

Inauteriak. Algorta. Info: <https://labur.eus/oeufopud>

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Sari nagusia ziztu bizian". Adin guztientzat. 2,50 euro.


Dantza. 18:00etan, Muxikebarrin, "¿Dónde está Alicia?", Marea Danzarekin. 6 urtetik aurrera. 8 euro.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



“Jainko Bakarra” margolanen erakusketa RKEEn

Romo Kultur Etxeak *Jainko Bakarra* izeneko erakusketa hartuko du otsailaren 20tik martxoaren 15era, Martzel do Nascimento Goiria artistaren eskutik.

Erakusketa, oraina eta beste etorkizun posible batzuk irudikatzen aukera aztertzen dituen bilduma bat da. Proiektua itxaropenik ezaren eta eraldaketak begirada materialista batetik pentsatzeko berebiziko bultzadaren arteko gorabehera emozional batetik sortu da.

Mihisean egindako teknika mistodun lanek aurkakoaren arteko tentsiotik eraikitzen dira: geometrikoaren eta organikoaren artekoa, oreka eta gatazka, eustea eta bulkada. Beltzaren eta laranjaen presentzia etengabeak izaera narratiboa hartzen du, pentsamendu material eta emozionalaren ariketa jarrai gisa funtzionatzen duen elkarbizitza kromatiko bat sortuz.

Erakusketaren inaugurazioa ostiral honetan izango da, hilak 20, eta ekitaldi horren ondoren bisita gidatua egingo da 19:00etatik 21:00etara.

“No me toques el cuento”, komedia musikal ganberro bat, non printzesak matxinatu egiten diren

Muxikebarrin Olivia Larak idatzi eta zuzendutako *No me toques el cuento* komedia musikal ganberro eta errebindikatiboa antzetzuko da ostiral honetan, hilak 20. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrera prezioa 12 eurokoa da.

Muntaiak ipuin klasikoaren lau printzesen (Edurnezuri, Errauskine, Bella eta Aurora) bertsio errealista bat aurkezten du, “betiko zoriontsuak” izan ondoren, kontatu ez ziren min, trauma eta konplexuei buruz kezatzeko, barre egiteko eta negar egiteko elkartzen direnak. Antzezlanaren helburua emakume horiek beren rol idealetatik askatzea da, beren alderik gizatiarrena eta errealena erakusteko, publikoarekin elkarreaginez eta laugarren pareta hautsiz.

Ekoizpenetik diotenez, denok ezagutzen ditugu haur-ipuinetako printzesak. Beti ederrak, alaiak, onberak. Eta, jakina... Denek dakite abesten. Baina, ezagutzen al dugu printzesa horien bizitza? Ba al dakigu zer ekarri zien maitagarrien ipuinak? Zer gertatu zitzaizen?

“Eta zoriontsu bizi izan ziren eta epe-erak jan zituzten” esamoldearen beste aldea da. Tonu lotsagabe eta di-



bertigarrian, komedia eta gogoeta eta kritika uneak konbinatzen ditu, musikal klasikoa baino gehiago “abestiekin komedia” kutsuarekin.

Sororitatea, maitagarrien ipuinen

desmitifikazioa eta emakumeen ahalduntzea bezalako gaiak jorratzen dituzte. Obra xumea da, ikusleekiko interakzioan eta emanaldian oinarritua (laugarren pareta hautsiz).

Zaintzari buruzko “Twentifourseven” dokumentalaren proiektzioa Gurarin

Twentifourseven dokumentalaren proiektzioa izango da otsailaren 21ean, larunbatean, 18:30ean, Gurari Emakumeen Etxean. Soraya González Guerrerok zuzenduta, lanak bere aita tetraplegiko utzi zuen istripua izan zenetik igarotako zazpi urteak

eta gertaerak ekarri zuen familiaren berrantolaketa kontatzen du. Hainbat sari lortu dituen dokumentalak, umoretik eta samurtasunez, zaintzari eta horrek dakarren zamari buruz hausnartzen du, arreta tradizionaliki ikusezin bihurtzen diren zaintzai-

leengan jarriz. Maskulinitasun hegemonikotik urrakortasuna eta mendekotasuna ere agertzen dira. Proiektzioaren ondoren solasaldia izango da zuzendariarekin eta protagonistarekin. Sarrera doakoa izango da.



“Neguko bidaia” zikloa rock, jazz eta musika klasikoko kontzertu batekin amaituko da

Mario Clavell Larrinaga & Lagunak taldearen *Azken dantza hau* izeneko errezitaldiarekin amaituko da larunbatean, hilak 21, *Neguko bidaia* kontzertu-zikloaren 18. edizioa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi, Miguel Salvador (gitarra), Marta Díaz (pianoa eta teklatuak), Eduardo Landeta (bateria), Jon Ander Amigo (baxua eta kontrabaxua) eta Mario Clavell Larrinaga (flauta eta EW) igoko dira Musika Eskolako oholtzara, edizioaren amaiera gisa eta antolatzaile eta aurkezle Mario Clavell Larrinagaren agur gisa espresuki pentsatutako programa bat interpretatzeko. Rock, jazz eta musika klasikoaren eragina duten azken urteetako obrak interpretatuko dituzte. Sarrera: 5 euro.



“¿Dónde estás, Alicia?”, dantza begirada garaikide, feminista eta flamenkoarekin


Valentziako Marea Danza konpainia igandean, hilak 22, iritsiko da Muxikebarrira, *¿Dónde estás Alicia?* ikuskizun berriarekin. Lewis Carrollen klasikoaren berrinterpretazio eta kritika bat da, flamenkoa hauren iruditeriara hurbiltzen duena, dantza espainiarraren, lengoia garaikidearen eta begirada bisual indartsu baten nahasketa oso pertsonal baten bidez. Teta Calvak sortu eta zuzenduta, *Alicia en el país de las maravillas* lanaren unibertsoa ikuspegi garaikide, feminista eta flamenko batetik egokitzen duen proposamen familiarra da. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euro balio du. 6 urtetik gorako haurrentzat gomendatzen da.

Portu Zaharreko ponpaketa-putzuaren gainean dagoen aparkalekua itxita egongo da hainbat hilabetez

Ur Partzuergoak Portu Zaharreko eta Arrigunagako ponpaketa-instalazioak hobetzeko lanak hasi ditu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Portu Zaharreko eta Arrigunagako ponpaketa-instalazioak hobetzeko lanak hasi ditu, baita Kakalekuko galeria berritzeko lanak ere. Lan horiek 18 hilabetez iraupena izango dute. Azpiegitura horiek inguruko auzoetako isurketak jasotzen dituzte eta Gobelako kolektoreko Bolue-Fadura tartera eramaten dituzte. Tarte horretako emariak Galindoko estazioan amaitzen dira (Sestao), Lamiako ponpaketatik bultzatu ondoren. Lanen helburua da euri aldi-tan gainezka egiteak udalerrian ingurumenean, osasunean eta gizartean duen eragina murriztea eta sistemaren funtzionamendu orokorra hobetzea, ingurunea eta Ereaga eta Arrigunagako hondartzak babesten lagunduz.

Obren hasiera dela eta, Portu Zaharreko ponpaketaren gainean dagoen aparkalekua aldi baterako itxi da (sarbidean ere aho bat irekiko da, berrituko diren hodi guztiak Kakalekuko galeriaren barruan sartzeko), eta horrek eremu horretan dauden plazak oku-



patzea ekarri du, inguru horretan lanak egiten diren bitartean. Espazio horretan, obrak garatzeko beharrezkoa den lan-esparru bat prestatu da. Gainera, itxitura bat jarri da Portu Zaharreko begiratikira igotzeko eskaileren ondoan, lurpeko galeriara materialak sartzearrastez.

Oinezkoen joan-etorriak seinaleztatutako ibilbide alternatiboak izango ditu, eta begiratikira igotzen diren eskaileren erabilera ez da etengo.

Ibilgailuen zirkulazioak ez du eraginik izango, aparkalekuak okupatuko diren eremuan izan ezik.

Datozen hilabeteetan, Arrigunagako ponpaketaren inguruan ere jardungo da, eta eragina batez ere oinezkoentzat izango da, obra-esparrura sartzeko puntuan, eta behar besteko aurrerapenez jakinaraziko da. Okupazioa 6 hilabetez izango da, gutxi gorabehera.

Era berean, Kakalekuko galeria-

tik igarotzen diren eroanbideak berritzeko, beharrezkoa izango da aldi baterako sarbide bat jartzeari Villaondoeta eta Iturgitxi kaleen elkargunean, espaloia zati bat okupatuz eta oinezkoentzako ibilbide alternatiboak ezarritik, ibilgailuen trafikoari eragin gabe.

Obrak amaitu ondoren, eragindako espazio guztiak egungo egoerara itzuliko dira, azalerako okupazio iraunkorrik gabe.

Aldi baterako trafiko mozketak egingo dira egunero 08:00etatik 14:30era, Makaletako etorbideko eta Ollarretxeko biribilgunetik

Salsidu etorbidean zuhaitzak berritzeko eta hobetzeko lanak hasi dira

Dauden espezieak egokitzeko, aldameneko eraikinekin bizikidetzatza hobetzeko eta ingurunearen segurtasuna eta mantentze-lanak optimizatzeko, Udalak Algortako Salsidu etorbideko hiri-zuhaitzak berritzeko eta hobetzeko jarduketari hasi berri du. Lanak bi zatitan egingo dira: lehen, Makaleta-Ollarretxeko biribilgunea eta Gaztelumendiren artean, eta bigarrena, Gaztelumendi eta Iturgitxi kaleen elkargunea eta Kasuneraren artean.

Lehen zatian, astigar gorriko (*Acer rubrum*) zenbait ale kenduko dira, gaur egun aldameneko fatxadetako balkoiak eta elementuak inbaditzen dituztenak. Kendutako aleak Aixerrotako jolasgunean transplantatuko dira, komun publikotik gertu. Horren ordez, tamaina txikiagoko ale autoktonoak landatuko dira, zehazki haginak (*Taxus baccata aurea*), hosto iraunkorrekoak.

Espezie horrek arrapala mekanikoetan eta pasaguneetan hostoak pilatzea saihestuko du, ingurunearen segurtasuna eta mantentze-lanak hobetuz.

Bigarren zatian, astigar gorriko beste lau ale transplantatuko

dira Aixerrotako leku berean, eta horien ordez lau hagin berri jarriko dira. Era berean, etorbidearen eskuineko ertzean dauden platanoak inausiko dira. Adar horiek fatxadei eta argi-

teria publikoari eragiten diete gaur egun.

Trafikoaren aldi baterako mozketak, egunero

Lanen ondorioz, aldi baterako tra-

fiko mozketak egingo dira egunero 08:00etatik 14:30era Salsidu etorbideko aldapan, Makaletako etorbideko eta Ollarretxeko biribilgunearen paretetik. Zirkulazio eten horiek aurreikusitako lanak egiteko behar den denboran mantenduko dira.



Gizonezkoen Getxo Rugby taldeak elitera igotzeko faseari ekingo dio

Getxo Rugby Taldeko gizonezkoen lehen taldeak Madrilgo Soto del Real taldearen aurka neurtuko ditu indarrak datorren igandean, martxoaren 1ean, 12:30ean, Faduran, Eliteko Ohorezko Mailara igotzeko faseko lehen jardunaldian. Gainerako aurkariak hauek dira: Universitario Bilbao Rugby, Bartzelonako Poble Nou, Andorra, Gipuzkoa Sortzen, CAR Sevilla, Alcalá de Henares eta CAU Valencia. Igoera fase honetan, talde bakoitzak zortzi partida jokatu ditu guztira, lau etxean eta lau kanpoan, itzuli bakarrek ligaxka batean. Multzoko lehen lauek igoera lortzeko jokatu dute: lehenak laugarrenaren aurka eta bigarrenak hirugarrenaren aurka, fase horretako sailkatu onenaren etxean. Irabazleek ligaxkan sailkatutako onenaren zelaian jokatu dute finala, eta garailek igoera lortuko du.

Lehenengo zatian, non dagoeneko jarduten ari diren, garajeetako sarbideak baimenduko dira, ahal den neurrian bizilagunen mugikortasuna bermatuz. Gaztelumendi kaletik sartzen diren ibilgailuek Iturgitxi kaletik edo Salsidu etorbideetik bertatik jarraitu ahal izango dute Villamonterantz.

Ondoren, bigarren zatiko lanak egiten diren bitartean, Gaztelumendik sartzen diren ibilgailuek Iturgitxetik bakarrik jarraitu ahal izango dute martxa.

Argiteria publikoa hobetzea

Zuhaitzak berritzeko lanak amaitu ondoren, argiteria publikoko zerbitzuak eta udal-brigadek argi-zutabeen eta argi-puntuen lerrokadura berrantolatuko dute.

Helburua da tarte horretako argiztapena hobetzea eta zuhaitzen adaburuak hazi ahala itzalguneak sortzea saihestea.